1994ko uztailak 22 / 73. zbk.

Astekaria

# BARREN elgoi



SARASUA

## VIII. Folklore Jaialdia




garajea

ASTIGARRAGA

San Frantzisko, 53, Tel. 74 01 86

X Ziklomotore eta motorren konponketa eta salmenta
X Motoserrak
X Desbrozadorak
X Neumatikoak
X Bizikletak



VIENDAROKO UDALAK

SANTIAGO ETA SANTA ANA

JAI ZORIONTSUAK

OPA DIZKIZUE

HERRITAR GUZTIOI

elgoiBARREN
Nafarroa enparantza 2
12 74 41 12
ARGITARATZAILEA:
Elgoibarko Izarra.
LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.
ZUZENDARIA:
Alberto Agirreazaldegi.
HIZKUNTZA ARDURADUNA:
Anjel Ugartelauru.
ERREDAKZIO KONTSEILUA:
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua.
KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro.
MAKETATZAILEAK:
Maite Rementeria, Edu Sanz.
PUBLIZITATEA:
Nekane Etxaniz.
ADMINISTRAZIOA:
Josune Femandez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK:
Irati Agirreazaldegi, Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazabal, Isabel Ansala, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Urizi Etxabe, Asier Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix Ehmberria, Izaro Etxegibel, Enetz Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Alfonso Guillo, Maite Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga, Imanol larrariaga, Haritz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, Iñoki Odriozola, lxa Sanchez, Jose Inazio Sarasua, Oihana Tarragual, Alain Ulazia, Olga Unzala, lgor Vazguez, Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz Vives, Aitor Zabaleto, Yulen Zabaleta.
BANAKETA ARDURADUNA:
Imandl Larrañago
INPRIMATEGIA:
Geriu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
TIRADA: 3.300 ale
LEGE GoRoana: 55-1.038/92
ISSN: 1133-021X

eigoiBARRENek ez du bere gain harlzen aldizkarian adierazitako esunen eta iritzien erantzunkizunik.

## ZENBAT BURU

### HAINBAT ABURU



# Marmitaba maiatzean

Hilabete baino ez zaigu falta herriko festetarako. Dagoeneko programazioa egina izango dute. Plaza Handiko berbena edo direlako horiek jarraituko ote dute? Azkenengo urteotan milioiak joan dira eurekin eta ondo dakigu zer nolako erantzuna jaso duten, elizako kanpaia izan da dantzan ausartu den bakarra. Egun, gauzak ez dira garai batean zirenak eta ikusten ez duenak ikusi nahi ez duelako izango da. Aspaldi honetan Elgoibarren eta bereziki Plaza Handian irudi bitxiak ikusten hasiak gaude.

Bada garaia gauzok aldatzen hasteko, ez baita berbena hauena dagoen aukera bakarra, aurrekontu apalagoekin ere egin daitekeenaz kontuak ateratzen hasi.

Leku aproposa da kontzertu lasaiagoetarako, antzerki, dantza talde eta abarrentzako. Oraindik orain Ongarrikoen emanaldien erantzuna ikusi besterik ez dago urrutiegi joan gabe. Beste aukera, hor xahutzen den dirua Maalako zer honetako emankizunetan gastatzea litzateke.

Ongarriko kontuari helduz, penagarria benetan Udalaren azken erabakia, alegia, Herriko Antzokiko zine emanaldien ardura banatzaile baten esku utzi izana. Ez dut uste Ongarrikoek ezer demostratu behar dutenik.

Ardura hori Ongarrik bere gain hartu balu herri honetako ekintzen antolamenduan gauzak egiteko beste modu baten hasera izan zitekeen, non herritar multzo batek berari dagokion esparruan lan egiteko aukera izango zukeen aldiberean herriari zerbitzu bat eskainiz. Baina jada ohitzen hasiak gaude, hurrengoan ere marmitako lehiaketa izango dugu maiatzean, kanpaiak bakarrik egin beharko du dantza eta agian slalon bat antolatuko dugu abuztu erdian San Frantziskoko iturritik hasi eta Karakatera.

**Asier Etxaniz**

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Foru Aldundiak eta Elgoibarko Udalak diruz lagundutako aldizkaria*

## KEXAK

**Oporren aurreko ale honetarako bi kexa dauzkagu:**
- Mintxetan uztailaren 16an izan zen futbol jaialdian norbaitek arbitroen aldageletako dutxak apurtu eta etxera eraman omen zituen. Gero gauzak ondo ez daudelako kexatu egiten gara!

- Bizpahiru irakurlek deitu digute Elgoibar eta Ermua arteko autobus zerbitzua gutxitu egin dutela salatzeko. Lehen PESAren eskuetan zegoena orain Eusko Trenbideak-ek hartu omne du eta aldaketa ugari egin omen ditu. Aldaketa hauen berri autobus geltokietan azaltzea eskatzen dute deitu digutenek.

## TXALOAK

Aste honetako txaloak Haritz **Dantzari** taldearentzat dira. Hogei urte hauetan egin duen lana benetan txalogarria izan da. Ea beste horrenbestean bide beretik segitzen duen eta dantzek merezi duten tokia izaten duten Elgoibarren.

# ESKUTITZAK

## Hemendik horra Alain!

Zaila da gure artetik joan berri den norbaitetaz idaztea. Zailagoa oraindik betirako joan dena bapatean, ustekabean desagertzen denean, susto batean uzten gaituenean. Eta oraingoan joan dena, Alain, hain gazte izanik, ia ezinezko gertatzen zait ezer idatzi edo esatea.

Entzutez ezagutzen hindudan, Alain, hire gurasoek egiten zizkidaten aipamenengatik eta bisitetan kontatzen zizkidaten berriengatik. Horrela jakin nian azkena ere, bizitzaren atean, bizitzaren udaberrian joan haizela, alegia. Horrelaxe zapuzten dituk mila ilusio, ostikoz jotako lore sortak bezala, zoritxarrez eta azken gaiztoz.

Hala ere gure artean gelditzen haiz, Alain, hurbiletik edo urrutitik, asko edo gutxi ezagutu haugunon oroimenetan eta bihotzetan beti biziko haiz, eta hire ametsak guk amestuko dizkiagu, geuri ere joateko ordua iristen zaigun arte. Orduan, azken txangoan, izpirituen lurraldean elkartuko gaituk.

Agur eta ohore bien bitartean, guregan bizi haiz Alain!!

JOKIN URAIN
(BONXEN DAGOEN EUSKAL
PRESO POLITIKOA)

## Hiltegia obran lagundu zutenei

Ekekei antzeztaldeak Hiltegia muntaian laguntzaile izan ditugun guztiak eskertu nahi ditu, eta bereziki: Fernando Elizondo, prestakuntza guztian zehar egin duen lanagatik. Jesus Mari Unzueta testu moldaketan egin duen lanagatik. Carlos Balseiro musika sortzeagatik. Mari Angeles Exposito eskenategiko oihalen apainketan laguntzeagatik. Aintzane Gonzalez, Igor isasmendi eta Asier Zengotita txalapartaren bidez Elgoibarko emanaldietan sortu duten giroagatik. Elgoibarko Izarra eta Udaletxea Herriko Antzokian egin genuen estrenaldia antolatzeagatik.

Besterik gabe, agurtzen gara.

EKEKEI ANTZEZTALDEA

**BARRENI ere iritsi zaio oporrak hartzeko ordua. Nau izango da azken alea. Abuztuaren 23an itzuliko gara San Bartolomeei buruzko ale berexi batekin eta jaietan zehar ere, Baserritarren Egunean hain zuzen, izango duzue gure berri. Iralietik aurrera, berriz ere, astero astero izango gaituzue zuen etxeetako buzoietan. Ordura arte, beraz, ondo pasa oporrak!**

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





40 le honetako erretratua 1971n ateratakoa da eta bertan azaltzen den batek laga diszu. Haritz Dantzari Taldearen 20. urteurrena dela aprobetxatuz, aproposa iruditu zaigu taldea sortu aurretik ateratako dantzari eta txistulari hauen erretratua argitaratzea. Erretratua aurrezki kutxaren baten bulegoak inauguratzerakoan ateratakoa da. Ikus dezagun zeintzuk diren dantzariak eta txistulariak:

Ezkeñetik eskumara atzeko ilaran: Antton Azpiazu, Jose Inazio Sarasua, Imanol Sodupe, ezezaguna, Itziar Elorza, Arrate Argarate eta Lorea Iriondo.

Bigarren ilaran: Mari Juli Arregi, Amaia Gorosabel, Maria Pilar Beristain, Agurtzane Epelde, Xabier Osoro, Mikel Osoro, Begoña Gil eta Miren Esnaola.

Hirugarren ilaran: Jon Iriondo, Josu Esnaola, Patxi Larrea, Imanol Ulibarri, Iñaki Odriozola, Aitor Bilbao, Jose Mari Larrañaga eta Iñaki

DEKORAZIOA
Ane
PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIAK
Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

ORMOLA
TABERNA
AZPILGOETA, 8 75 50 16 MENDARO

Edecel~eut
doliaejeot 9a,za,
Paace,14
7444t4
COZOTECIX
San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

AtAulAso Atiguiu
HARATEGIA
Mendarozabal 3 75 60 64 MENDARO



# Argonenz, fbania eta Euskadi DANTZAN

**Herrialde urrunetako doinu eta dantzak ekarri ohi dizkigute urtero sasoi honetan. Kolore deigarriak eta dantzen edertasunak folklore usainez jantziko du hil honen 28ko gaua. Nazioarteko VIII. Folklore Jaialdirako prestakizunak martxan daude, Gau horretan Argentinak, Lituaniak eta Euskadik bat egingo dute bertaratzen direnei dantza ikuskizun aparta eskaintzeko asmoz.**

Hil honen 28an Olaizaga Kiroldegian izango da jaialdia, gaueko 10,30etatik aurrera. Portugaleteko Elai-Alai Dantza Taldeari esker zortzigarren aldiz ospatuko da aurten Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdia. 1987. urtetik gaur arte, urtero bezala, Udala, Aldundia eta Musika eta Dantza Fundazioaren antolakidetzaz ospatuko da jaialdia. Azken urteotan urruneko hamabost herrialde ezberdinetako dantza eta folklore taldeak egon dira gure herrian: Yugoslavia, Puerto Rico, Antillas, Checoslovaquia, Costa Rica, Bulgaria, Cerdeña, Egipto, Bolivia, Rusia, Brasil, Grecia, Haiti eta Rumania; eta aurten, Argentina eta Lituania. Hauekin batera, jardunaldi guztietan Haritz Dantzari taldea Euskal Dantzen erakusgarri gisa aritu da. Jaialdia prestatzen urte osoa ematen dutela adierazi digu taldeko zuzendaria den Jose Inazio Sarasuak. "Urte osoko lana baliagarri zaigu jaialdia prestatzeko, baina jaialdia ospatuko den eguna gerturatzen doan heinean entsaivak gogortu eta ugaritu egiten dira".

Haritz Dantzari Taldeak esfortzu berezia egin behar izaten du okasio berezi honetarako. Dantzari askok hartzen du parte. Hogeita hemezortzi dira guztira, hogei mutil eta hemezortzi neska. Musika atalean ere ohi baino musikari gehiagok hartuko du parte. Udal Txistulari Taldeaz gain, Herriko Dultzaineroak, Trikitilari

eskolako bi kide eta Inazio Bereziartua Musikeskolako bi soinujolek joko dute.

Haritz Dantza Taldearen jardunaldiak bi zati izango ditu. Lehen zatia Soka dantza, Arratiako jotak eta Bizkaiko Dantzari dantzak osatzen dute. Elgoibarren bakarrik egiten da Soka dantza herriko jaietan, San Bartolome egunean hain zuzen. Ondoren Arratiako jotak dantzatuko dituzte eta azkenik, Bizkaiko Dantzari dantzako Zortzinangoa, Ezpata Joku Nagusia eta txotxongiloa. Bigarren zatian Juan Antonio Urbeltzek landutako Irati bailarako abesti eta dantzak burutuko dituzte. Eaurtako nesken dantza, Otsagiko dantzariek Andra Mariari eskaintzen dioten dantzen artetik, Enperadorea, Dantza, Jota eta Painelu dantza. Argia dantza taldeari esker "Kontrapasa" dantzatuko dute aurten lehen aldiz. Ekitaldia Etxahun Iruriren kanta batekin bukatuko dute.

Euskal Folklorearekin batera, Argentinako eta Lituaniako dantza eta abestiez gozatzeko aukera izango dugu.



## HARITZ

Aurtengo VIIL Folklore Jaialdiarekin batera, 20. urteurrena ospatzen ari da Haritz Dantzari Taldea. 1964. urtean Jon Arrieta eta Lourdes Odriak talde bat prestatu zuten San Bartolome jaietan dantzatzen zen Soka Dantza indarberritzeko asmoarekin. Gaztetxoenengandik bereizteko, Haritz Dantzari Taldea deitu zioten.

Hogei urte hauetan bilduriko hainbat dokumenturen Iaburpen gisa, hainbat argazki ikusgai daude Kultur Etxean hilaren 31a arte. Bertan ikus daitezkeen argazkiak "gutxi batzuk baino ez dira", esan zuen Jose Inazio Sarasuak, Haritz-eko zuzendariak erakusketaren inaugurazio egunean, "materiale asko geneukan eta aukeratu beharra izan dugu".





## ARGENTINA

"Danza Argentina" taldea da atzerritik etorriko den bietariko bat. Argentinako kultura folklorikoa aberatsa eta benetakoa da. Elementu ezberdin ugarikoa, Argentina bera ere lurralde zabala eta kultura anitzez osatutakoa baita. Arte eta tradizio herrikoiak taularatzeko erraztasun ugari eskaintzen ditu folklore argentinarrak. Folklorearen arlo ezberdinak azaltzen ditu, Andeetakoa zein Panpetakoa. Horrela, kultura afrikar eta europearraren eragina jaso duten kultura autoktonoen iraupena ziurtatzen dute.

## LITUANIA

"Nemunas" izena du Lituaniako dantza taldeak. Lituaniako lurralde ezberdinetako tradizio folklorikoen erakusgarri da talde hau. Lituaniako folklore talde zaharrenetarikoa da eta 1949. urtean sortu zen. Aurtengo udazkenean 45 urte beteko ditu "Nemunas" taldeak. Denbora tarte honetan zuzendari eta dantzari asko bertatik pasa badira ere ideiak berdinak dira eta lanerako gogoak ere hor dirau. Musika eta dantza tradizioak gordetzea eta ahal den neurrian munduan zehar erakustea da taldearen helburua.

## • Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du igandean, hilak 24, Herriko Antzokian eguerdiko 12,30etan. Lau pieza joko dituzte Jose Antonio Osoro zuzendari dutelarik: Gerona (S. Lope), Boccaccio (F. Von Suppe"), The Typewriter (L. Anderson) eta Mendi-mendiyan (J.M. Usandizaga). Hurrengo kontzertua San Bartolome egunean emango dute Itxaropena eta Parrokiako Abesbatzekin batera.

## • Eibarko Hiria Gazteen X. ipuin lehiaketa

Eibar Udalak "Eibarko Hiria" Gazteen X. Ipuin Lehiaketarako oinarriak kaleratu ditu. Parte hartzaileak 25 urtez azpikoak izan beharko dira, bi mailatan banatuta: 14 urtetik 17 urtera eta 18tik 25era. Gaia librea izango da eta lanak azaroaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dira Eibarko Udaleko Kultura sailean. 18 urtetik gorakoen mailako irabazleak 40.000 pta jasoko ditu, eta gaztetxoen mailan berriz, 25.000 pta.

## • Odol ateraldia

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko talde bat Elgoibarren izango da hil honen 22an, Pedro Migel Urruzuno 8 lokalean, ohizko ateraldiak egiteko. Hurrengo ateraldia abuztuaren 19an, ostirala, izango da.

## • Yesa eta Leirera txangoa

Zaharren Biltokiak hilaren 28rako antolatutako Leireko monastegira eta Yesako pantanora txangoa errepikatu egingo da hurrengo egunean, hilak 29, harrera ezin hobea izan baitu jendearen aldetik. Izena emateko epea ere luzatu egingo da hilaren 25era arte. Era berean, Zaharren Biltokiak bazkide guztiei jakinarazi nahi die, San Bartolome jaietarako bazkariko bonoen banaketa egiten ari direla. Jaso ahal izateko bazkide txartela erakutsi beharko da.

# HB:"Jaietako egitaraua egiterakoan herritarrek hartu behar dute parte"

HBk San Bartolome jaietarako egitaraua egiterako orduan "EAJk, eta batez ere, Gillermo Garate Kultur Zinegotziak, izan duen jarrera arduragabea" salatu du, besteak beste, "maiatzaren 9tik uztailaren 11 ra bitartean Kultura Batzorde bat bera ere ez delako egon". Alderdi abertzaleak, azken urteotan egitaraua osatzerakoan nabari den "inertzia" salatzen du . Horrezaz gain, Agirrek esan bezala, "jaiak herrian daude sustraituak horregatik, herritarrak izan beharko lirateke egitarauaren egileak ere. Gazteen eguna gazteek antolatu beharko lukete eta jubilatuen eguna, jubilatuek". Herritarren partehartzea azpimarratzen dute, batez ere, eta Udaletxeari parte hartze hau bultzatzea eskatzen, "orain arte eman diren ideia berrieri ez baitzaie kasurik egin".

Bestalde, HBren ustez festa Maalara ezezik, Plaza Haundira eta Nafarroa Enparatzara ere hedatu behar da. Tokian tokiko ekintza eta kontzertu egokiak antolatuz, jendearen gustuen araberakoa.

Datorren astean izango den plenoan HBk Ikurriñari buruzko mozio bat aurkeztuko du, Ikurriña abuztuaren 23an, eguerdiko 1 ean, jaien hasera markatzen duen txupinazoarekin batera alkate jaunak berak jartzea eskatuz.



**Argazkiko sukaldariok,** Udaleko Euskara Zerbitzuak udara begira antolatutako sukaldaritza ikastaroan aritu diren neska-mutilak dira. OHOko 5. eta 6. mailako 9 haurrek osatu dute lehen taldea, eta 7. eta 8. mailako 15 haurrek bigarrena. Astebetez aritu da talde bakoitza Zaharren Biltokiko sukaldean Argiñano eta Subijanaren trebeziak ikasi nahian. Maria Jesus Garitagoitia sukaldariaren agindupean, pastel eta bonboi goxoak egiten ikasi dute. Egin ondoren zer? Jan, noski!



**Ikurriñaren 100. urteurrenean** Udaletxeko balkoitik zintzilikatu zuten ikurriña. Juan Mari Eguren alkate ordea, HBko Pedro Mendizabal eta EAko Fermin Senosiain izan ziren ekitaldi ofizialari hasera eman ziotenak Ikurriña erdiko zutabean zintzilikatuz. Jarraian, Haritz Dantzari Taldeko kide batek Udal Txistulari Taldeak lagunduta, aurreskua dantzatu zuen Ikurririaren ohorez.



## ■ Xabier Arrillaga "Oteiza" lehiaketan saritua

Xabier Arrillaga Etxanizek, 13 urteko gaztetxo elgoibartarrak, Ikaspilota Elkarteak, Ikastolen Elkartearen eskutik sortutako erakundeak antolatutako I. Oteiza Ipun Lehiaketan¨ lehen saria irabazi du gaztetxoen mailan. Oteiza lehiaketan nagusi izan dira elgoibartarrak, Xabierrek lortutako sariaz gain, BARRENen duela aste agertu zen bezala 1riigo Otatio izan baitzen 18 urtetik gorakoen mailako irabazlea. Xabier Arrillagak ¨Ni pilotatxo bat¨ izeneko lanagatik jaso du lehen saria. Pilota, haseran kortxo bat izanik, pilotagile baten eskuetatik pasa ondoren, pilota bihurtzen da. Ipuinean pilotak dituen pentsamenduak deskribatzen dira, baita pilotak gauzatu nahi duen mendekua ere.


• BEHERAPENAK • BEHERAPENAK • BEHERAPENAK. BEHERAPENAK • BEHERAPENAK •




MIM X

ERROPAK

%25eko beherapena

MUSIKA

Konpaktoak 995 ptatik

Diskoak %20eko beherapena

• BEHERAPENAK • BEHERAPENAK 0 BEHERAPENAK® BEHERAPENAK • BEHERAPENAK •

## E Ginkana 94an izena emateko epea

Kokoe, Hodei eta Gurutze Gorria elkarteek San Bartolome jaietako Gazteen egunerako antolatu duten Hiper Ginkana umore frogan izena ernateko epea zabalik dago. Aurten lau pertsonez osatutako 15 taldek hartu ahal izango dute parte gehienez, horregatik lehenbaitlehen komeni da izena ematea. Eginkizun honetarako epea abuztuaren 26an, Gazteen egunean amaituko da. Izena Kultur Zerbitzuan eman daiteke.

## • Saskibaloi taldearen bilera

Larunbat honetan, hilak 23, "Elgoibar Saskibaloi Taldeak" bilera egingo du Kultur Etxean eguerdiko 12etan honako gai hauek jorratzeko asmotan: klubaren finantziazioa, jokalarien aukeraketa eta beste zenbait gai. Interesa eduki arren aurreko bileretara joan ez zirenei larunbateko bilerara ager daitezen eskatzen zaie.

## • I. Udako Erretratu Lehiaketa

BARREN astekariak I. Udako Erretratu Lehiaketa antolatu du. Elgoibartar guztiek har dezakete parte eta egin behar den gauza bakarra, uda honetako oporretan ateratako argazkiak BARRENera bidaltzea da. Bakoizak nahi beste erretratu bidali ahal izango ditu helbide honetara: BARREN astekaria, "I. Udako Erretratu Lehiaketa", Nafarroa Plaza zlg. 20870 Elgoibar. Erretratuak koloretan zein zuri-beltzean izan daitezke eta neurria, berriz, 9x13koa gutxienez. Lehen bi sarituentzako astebukaera bateko Landetara bidaia egongo da. Anitnatu eta bidali zuen erretratuald



**Maalako auzoak** Amabirjiñaren omenezko jaiak ospatuko ditu asteburu honetan. Jai egitaraua antolakuntzak nahiko lukeen bezain ederra eta ekintzez betea ez izan arren, ahalegin berezia egin dute maalatarrek aurten ere beren jaiak izan ditzaten. Udalaren aldetik dirurik jaso ez dutenez, oinarrizkoena baino ez da egongo aurtengo jaietan. Txafligu jaurtiketa, haurrentzako jokuak, erromeria Gelatxorekin eta larunbat gaueko afari herrikoia izango dira Maalan izango diren ekintza nagusiak.




JAIETAN
OILASKO GOXOA ETA
ETXEKO SAGARDOA
N( N9
111 kiElMINIOS
TABERNAN
affilo,a(fa Aialo Ja/lai,/,/

kili BARREN
Mendaroko gehiagarria Uztailak 22 8. Alea

# Ba al daukazu Santa AnatarEko?

**XEBER LOIOLA** (13 urte, ikaslea)
Santa Anak ahal ditudan hobeen pasatzeko asmoa **dut,** ekintza denetan parte hartuz. Txarangan jotzen dudanez herritarrak animatu nahi ditut. Gazteen Eguneko jokuetan parte hartzea nahiko nuke.





**MARGARI LAZKANO**
(51 urte, dendaria)
Oso ilusio handia dakat. Aurtengo ilusiorik handiena, Santa Anara joan, bokadiloa jan, meza entzun eta dantzan egitea da.

**BALENTIN ARRIOLA** (90 urte, jubilatua)
Jubilatuen bazkarirako dudarik gabe. Lehen ilusio gehiago, baina pasodoblea dantza egiteko gogo bera daukat lehen eta orain.





**NAGORE IRIONDO**
(21 urte, ikaslea)
Gazteen Eguneko programazioa oso osorik da ona, Santa Ana eta gaueko parrandak dira sakratuak. Tanborradak eta zezenek ere festa hobetzen dute.

**NEREA ZULAIKA** (25 urte, administraria)
Ilusio handia dakat urte guztia txarangan entsaiatzen pasa ondoren. Erromeixak eta Santa Ana Eguna ditut gogokoen, baina lana ere egin behar da eta...





**PEDRO M. GOIKOETXEA**
(52 urte, perito industriala)
Oso ilusio handia dut, karrera ziklista, Santa Ana Eguna, Tanborrada... Zezena botatzen dut faltan, bestalde, frontoiakin jaiak hobeak eta seguruagoak dira.

Aspaldi hasi ziren jaietarako prestakuntzak eta jadanik ia dena prest dagoela dirudi. Orain dela dexente agertu ziren, Santa Ana jaiak osatzen dituzten programaketak, hala nola, musika talde, trikitilari, herri kirol, dantza talde etab.

Bestalde, bada urte guztian zehar lanean jardun duen jendea jaietarako ilusioz. Horrez gain, beste hainbat eta hainbat xehetasun izaten dira kontuan hartu beharrekoak, guk geuk nahi dugun bezala igaro daitezen. Espero dugu, inongo arazo edo oztoporik ez egotea, bakoitza bere painelu berdez kalera irten eta dantza egitea.

Beraz, egin beharrekoa eginda dago, orain herritarren esku gelditzen da jaien martxa. Datorren urterako hobeak izan ditezen saiatuko gara, eta guk gazteok laguntza gehiago izatea eskatzen dugu.

Jendeak parte hartuz eta elkarri lagunduz jai ezin hobea lor daitezke.

ONDO PASAU JAIXAK!!!

## "Lagun betikoa" Jubilatuen Elkartea

Pasa den uztailaren 5ean izan zen Mendaroko Pentsionista eta Jubilatuen Batzar Orokorra. Bertan gai ezberdinak jorratu ziren. Horien artean, Zuzendaritza osatuko dutenen zerrenda zehaztu zen. Hona hemen guzti horien izen-abizenak: presidentea Valentin Jauregi, presidente ordea Regina Garcia, idazkaria Milagros Goikoetxea, diruzaina Jose Antonio Iriondo eta, azkenik, bokalak, Maria Unzueta, Arantxa Arrieta, Rosario Longarte, Mertxe Mugerza, Placido Ronda eta Txomin Urbieta.
Bestalde, aurrerantzean elkarteak izango duen izena erabaki zen, "Lagun betikoak", hain zuzen ere. Estatutuak irakurri eta onartu ondoren urteroko kuotaren zenbatekoa jarri zen. 1994 urte bukaera arte 500 ptakoa izango da.





Aurreko KiIiBARRENean esan bezala, auzolandegietan Ianean ari diren gazteak ditugu Mendaron uztailean zehar. Bi txanda ezberdin izango dira, bakoitza hamabost egunetakoa. Lehenengo txandan hogeita hiru gazte izan dira eta Mendaron hain ugariak diren karobietariko batzuk garbitzen aritu dira. Orain bigarren txandakoak iritsi dira, hauek ere aurrekoen lan berbera izango dutelarik. Halere, karobiak garbitzeaz gain, asteburu eta arratsaldeak libre dituzte Euskal Herriko inguruak ezagutu ahal izateko. Gazte hauek Euskal Herriko puntu ezberdinetatik ezezik, Estatuko hainbat txokotatik ere etorri dira.

## Mendaroko Jubilatuen Eguna

Joan zen igandean, eta Santa Ana jaien egitarauaren barruan, ospatu zen Jubilatuen Eguna. Lehenik meza izan zuten eta ondoren jaialdi txiki baina bikain bat ikusteko parada izan zen. Aipatu jaialdian ondoko hauek hartu zuten parte: giroa dantzaz eta musikaz berotu zutenak Mendaroko dantzariak eta Ospas eta Xabin trikifflariak izan ziren. Herri kirolek ere izan zuten beren txokoa, honela, Egi eta Mintxeta gaztea harrijasotzaileen ikuskizuna izan zen batetik, eta Kanue eta Agarre-Txiki trontzalariena, bestetik.
Aizpe elkartean izan zuten bazkaria, guztira hirurogeita hamar urtetik gorako 97 jubilatuk hartu zutelarik parte.



## Mendaroko Txirrindulari Txapelketa

Pasa den larunbatean, hilak 16, Mendaroko Txirrindulari Txapelketa izan zen. Txirrindulariak Mendarotik irten ziren. Puntu garrantzitsuenak, berriz, Itziar gaina eta Kalbaixoa izan ziren. Helmuga Mendaron bertan zegoen kokatua eta bertara 50 txirrirtdulari iritsi ziren. Txapelduna Tomas Daniel Amador Gil izan zen, 2ordu 11'48"ko denbora egin zuelarik. Iker Kanala Etxebarria izan zen Iasterketan parte hartu zuen mendarotar bakarra. Honek, 2 ordu 14' 51"ko denbora egin zuen.

# PROTAGONISTO



Argazkia Hilario Arakistainek lagatakoa da. Kontatu digunez, garai batean Santa Ana egunean Mateo tabernariak ardoa saltzen omen zuen kalean. Erretratuan. agertzen dira lau lagun, ardoa batetik eta Mateo bera diruz beteriko poltsa eskuan ondo helduta. Ezaguna zen Mateo; Basarri bertsolariak ere, orain berrogei bat urte honako bertso hau bota omen zion:

*"Mendaro hontara ekarria det akabatu gabeko innoria*
*ikusten cledalako gizarte dotoria.*
*Neretzat gustagarria da hauek daukaten koloria*
*baina oraindik denen buru dago Mateo korredoria."*

Hara, banan banan argazkian azaltzen direna: ezkerretik eskumara: Florentino Loiarte (Naparra), Feliciano Garate, Hilario Arakistain (Errementari) eta Mateo Arriola (tabemaria).

9e9 eit 7~~

## *Arrats-eko* kamarereoa



1 Santa Anetan juerga ala lana? juerga.

1 Zer edaten da gehien? Kalimotxoa eta garagardoa.

1 Jendea zer rnoduz portatzen da? Denetarik daukagu, badakizu, edana...

1 Zein da gehien eskatzen den musika? Gazteek bakalaoa eta euskal rocka, zaharrek runba.

1 Zer prestakuntza tabernek jaietarako? Adornuak, edari gehiago.

1 Ilusiorik? Bai, baina lana ere egin behar dut.

1 Ligeak barra barruan ala kanpoan? Kanpoan.

1 San Ferminak ala Santa Anak? Biak.

1 Ikasketak ala tabernako lana? Batak dirua eta besteak sakondu beharra.

1 Santa Anetarako aholku bat? Gorputzari zigor handirik ez eman eta ahal den hobetuen pasa.

# Javier Urbieta:

## "Lehen diru gutxikin anbiente itzela egoten zan"



Javier Urbieta bertsozale mendarotarra da. Aspalditik datorkion zaletasuna du bertsoena eta Mendaroko zenbait jai eta ekintzetan, bere zaletasuna erakusteko aukera izan du urteetan zehar. Santa Ana jaiak gainean ditugunez, mendarotar honen gaztaroa gogoratuz garaiko Santa Ana Eguna berregin nahi izan dugu, hitzez bada ere.

- Nolakoa zen lehen Santa Ana Eguna?

- Goizian sokamuturra zauan eta kalian jendia pausorik eman ezinda egoten zan. Gero, aizkolari eta saltakaixak ere egoten zian baina meza ondorenian ez zan izaten oin bezela. Lehen tabernarixak ixotzen zian ardua saltzera. Bertsolarixak ere izaten zian: Uztapide, Lasarte, Basarri... Onenak etortzen zian orduan, Mitxelena ere askotan. Uztapidek ere bere liburuan esaten dau Mendarotik Deba alderako bidean badala eskubikaldean ermita bat han goian eta berak banaka batzuetan kantau zuela han. Aurreskua ere ateratzen zan eta sokan baja tzen zan kalera.

- Noiz egin zenuen bertsotan lehen aldiz?

- Martin Biraburu eta biok Trinidadeetan egin gendun bertsotan. Gero, Arruanek esan zigun Santa Anetan kantatzeko. 18 bat urte izango nitxun nik orduan. Azkenian Arruanek hogeina duro eman zizkigun, ta gu pozik! Akordatzen naiz orduan botatako bertso batetaz:

"Santa hontan ez dakit zenbat
arrazoi esan leikezen
badakizute bideak ere
nolatan geizki dagozen
gazteok nunaitik etortzen gera
berain behetik-gora zuzen
baina bideak konpon ditzagun
zaharrak etor ditezen"

- zenbat egunetakoak izaten ziren Santa Ana jaiak?

- Santixau, Santa Ana eta Santa Ana Txiki, baina gero repetizivak ere egoten zian. Repetiziuetan ni saltaka eginda nago. Saltakairik hor ez zauan eta Arrua etorri zan Gaztianian lagunak geurtdela ia egingo gendun esatea. Holaxe, Antonio Lasalderreko ta denok erten ginan saltaka itxea trankil trankil, neuk irabazi nuan baina Ma teonian danok afaixa euki gendun irabazitxako premixuekin.

- Erromeixarik egoten al zan?

Bai, Joxe Mari eta Bixente etortzen zian Bergaratik soinu ta baterixiakin. Juergia itzela botatzen gendun ta akordatzen naiz behin Bixentek soinua hartu ta errekan behera jotzen hasi zala. Gero, Gartzianeko parian alkondara zurixakin uretan etzan eta soinua jotzen jarraitxu zuan.

- Sariren bat ere irabazi duzu.

- Bai. Txirristakaren ehun urteurrena bete zanian Mendaron mahaingururuak, hitzaldiak eta bertso paper leihaketa bat ere egon zan. Gai librian Xalbadorrek irabazi zaban, bigarrena Mendiburuk eta hirugarrena Lazkanok. Txirristakari buruzko saria neuk irabazi naban.

- Bertsolaririk gustukoena?

- Lizaso, Euskitze eta Egaña. Lizasok bertsoa ondo moldatzen deu. Egañak bertso berri gehien egiten dituena da eta Euskitzek hizkuntza egokia erabiltzen deu, baita errima ere.

- Santa Anatarako ilusiorik?

- Bai, gehixen Santa Ana Egunerako, anbientia asko gustatzen jat, bokadilua jan, txakolin piskat eran eta gero kalian dantza egin...



**Kolaboratzaileak:** Joseba Etxeberria, Aitziber Gurrutxa , taide Loio
thana T iñe zabala.

cifirlotk, OPARIAK
PASTELAK
ALDIZKARIAK
GOXOKIAK



71~, In 75 50 76 914~1~

EXMAHE 5.1.
MAKINA ERRAMINTA ZERBITZUAK ETA ESKLUSIBAK
BULEGOAK: ALMAZENA-TAILERRA:
Azpilgoeta, 3 Pedro Muguruza, 25
TEL 75 50 93 FAX 75 51 21 TEL, 74 36 46
20 850 MENDARO 20 870 ELGOIBAR

EICATBL ala ELESTI"Elk

# David Mekolaide

## BARRENeko banatzailea



- **BARREN ala elgoiBARREN?**
BARREN astekarixa esaten dot.
- **Motxilaz ala karroz?** 1 Nik motxilaz baina beste batzuek karroz.
- **Zenbat ale banatzen dituzue bakoitzak?** 1 Gutxi gora behera ehun eta hirurogei.
- **Zenbat kale?** 1 Zazpi bat zona dauzkagu eta horiek banatu itxen ditxugu.
- **Zonarik txarrena?** 1 San Frantzisko, jende asko bizi da eta. Sigma urruti egon arren ez da hain zaila.
- **Zenbat denbora behar izaten duzue?**
Pegatinak jartzen ordu erdi bat eta banatzen ordu batera ez da iristen.
- **Oinez ala korrika?**
Nik oinez itxen dot, lasai lasai, baina batzuetan berandu ailegatzen bada aldizkarixa korrika ibiltzen gera, ahalik eta azkarren amaitzeko.
- **Tentaziorik aleak kale bazterrean lagatzeko?**
Ez, inork ez badigu aterik zabaltzen ate azpitik sartzen ditxugu.
- **Zain egoten al da jendea?**
Bai, batzuek portalera bajatzen dia BARREN hartzera eta egunen batian berandu jun ezkero... "Ze, gaur ze? Berandu, ez?"
- **Harpidedunen izenak ezagutzera iristen al zarete?**/ Ailegatzen da momentu bat zure zonako izenak ezagutzen ditxuzula eta beste bat sartzen danian igartzen dozu berrixa dala edo, bestela, ez dala zure zonakua.
- **Irakurtzen al duzu BARREN?** > Ostiralian ez, igual astearte edo asteazkenian.
- **Zer da begiratzen dozun lehenengo gauza?** 1 Komikixa, haseran daualako, kexena interesgarrixa da eta argazki kuriosuak azaltzen dia.
- **Jasotzen al dituzue zuek kexarik?** > Ez, jendeak badaki kexa bat duenean nora deitxu bihar daban, Elgoibarko Izarrara.
- **Banaketak duen txarrena?**
Inprentatik berandu ailegatzen danian eta jaixetako alia, zela lodixaua izaten da eta pisu gehixo dakan bi bidaia egin bihar izaten ditxugu.
- **Eta onena?** > Biltzen geranian gure artian dakagun anbientia: txistiak kontatzen eta, ailegau arte, kartetan jolasten ibiltzen gera.
- **Anekdotaril?**> Behin hasi ginan pegatinak ipintzen eta batek aurreko asteko aldizkarixak hartu zitxun konturatu gabe, eskerrak segitxuan konturatu ginan!

## BARREN OPORRETARA DO

**DOINUA:** Habanera

"Hauxen da despedidea",
trikitilarien hitza;
jendeak haien agurrak
oraintxe onartu bitza.
BARRENen batu zaizkie,
hauei hamaika baldintza;
Aldizkariaren alde
bizkarra bait dute pitza.
Albiste, komentario,
ta berdin bertsolaritza
gure hondar aletxoaz,
lagundu nahirik gabiltza.
Lanean ibili dira
hauek Espartano gisa.
Konstantzian dago eta
arrakasta denen giltza.

Urtea hasi zenetik,
aurrera eta aurrera,
orain oporrak hartzea,
komenigarri ote da?
Ez du honek segituko,
hilabetean, bai zera!
Pixkat reflexionatzea,
ezertxo baino hobe da.
Orain zu irakurlea,
triste jarriko al zera?
San Bartalameak arte
ez da irtengo kalera.
Irailean hasiko da,
BARRENen bigarren era.
Gu besoak zabalikan,
hauen zain egongo gera.



ARNAITZ GORRITI







MALAKOJAIXAK!!

Tradizioa,
errorneria girodn.

# Gorka V ujika eta Gorka Regil:

# 131 elgolbartar iose Luis Morenoren saioan

Gorka Regil eta Gorka Mujika elgoibartar gazteak orain astebete Vigotik itzuli dira. Bertan hilebete t'erdi inguru pasa dute, Jose Luis Morenok zuzentzen duen "Verano de estrellas" saioko orkestako partaide bezala. Biek perkusioa jotzen dute. Jesus Vazquezek, Angela Carrascok eta Marlene Moureauk aurkezten dute aipatu saioa eta horiekin izan dute traturik gehiena. Halere, beste makina bat famatu ere ezagutzeko aukera izan dute. Hara hona kontatu digutena.

-Nolatan zuek Morenoren saioan?

Mujika: Batzuk "Entre arnigos" programara juten zian play-baek itxera. Udako programa espeziala itxeko neri ere deitxu zien eta jende aehixao bihar zanez nik Gorkari deitxu nion.

- Paly-backa egin al duzue?

Mujika: Programa bakoitzian aktuazio bat zakagun zuzenian orkesta bezela. Gero, segun zeinekin direktuan jotzen gendun ecio play-backa.

- Zenbat entsaio?

Mujika: Jun aurretik ere entsaiau gendun baina gero han, Vigon, beste mordo bat ze entsaio asko alperrik izan zian.

- Zergatik hori?

Regil: Erabakitxa zakagun repertorixua Jose Luis Morenori ez bajakon g.ustatzen aldatu egin behar izaten gendun, berari gustau arte.

- Nolakoa da Moreno?

Mujika: Guk ez dau traturik euki berakin baina egixa esan bastante gottorra da, gauza bat ez bajako gustatzen kapaza da ezer esan gabe kalera bialtzeko edonor.

Regil: Presentadoriak ere gioitik kanpo zauan zeozer esaten bazeben una bronca de la leche!

Mujika: Bueno segun ze famosori, ze Rocio Juradori ni palabra eta, en kanbio, Jesus Vazquez-eril

Izan al duzue traturik famatuekin?

Regil: "21 Japonesas¯ taldekitekin oso ondo, zela Donostiakuak dian, eitskeraz ere in gendun berba eurekin.

Mujika: Presentadoriak gurekin jaten zeben bokadillua eta futbolian jolasten bagenun, Vazquez-ek batzuetan gurekin jolasten zaban.

- Eta euren arteko harremana?

Mujika: Gehixenak "a su rollo" juten zian, baina egun batian etorri zian "Los RonaIdos" eta "No me pises que Ilevo chanclas" taldiak eta euren artian oso ondo eruaten zian, kuadrillakuak ematen zeben.

- Zer izan da harrigarriena?

Mujika: Montaje guztixa, kristona zan, han dauan dirua! Halere, gero telebisivan igual dana kristona ikusten da eta benetan zuloz beteta dau.

- Nolakoak dira artistak aurrez aurre ?



Elgoibartarrek perkusioa jotzen dute. Goian tente, G. Mujika ezkerrean eta G. Regil eskuman.

Regil: Marta Sanchezek galtzen dau mordo bat...

Mujika: Eta Sabrina aldrebes, nik pentsatzen naban begixak askoz okertuauak zitxula.

- Fansen asuntua, zer?

Mujika: Inkreible! Alejandro Sanz etorri zan egunian, neska guztiak gainera, seguridadekuak ezin kenduta gainetik...

Regil: Jesus Vazquezekin ere berdin, edozer esaten zaban autografuak firmatzetik alde itxeko,

- Ezagutu dituzuen guztien artean aukeratu bana.

Mujika: "Los Ronaldos" eta "Los ManoIos¯.

Regil: "Los Manolos", oso enroilatuak dia.

- Ba al dituzte maniarik?

Mujika: Ez gehiegi, kamarak beti perfil ona hartzeko eta holakuak.

- Anekdotarik?

Regil: Alejandro Sanz-ek jo zabanian bere taldeko bajua falta zan eta Gorka egon zan han, bere onduan, figurina itxen, mikrofono eta guzti.

Noiz ikusiko zaituztegu telebistan?

Hasi dira emititzen, ETB2n, larunbat gauetan eta igande eguerdian.

## Santa Klara komentuko isurbide gangaduna

D Santa Klara komentuko isurbidea, isurbidea baino San Migel edo Aizti errekastoaren estalkia da. Gaur egun estaldura hau Santa Klara auzoan, Metalkua baserritik Deba ibairaino doan isurbidearen barruan kokatua dago.

I: 636 metroko luzera du. Trazaketa 6ihurgunetsua du eta zenbait unetan estali gabe dago, sekzio ezberdinak ditu eta materiale diferentez dago egina (harlangaitza,

❏ Santa Klara komentuko isurbide gangaduna XVI_ mendetik aurrera dago dokumentatua. 1524ean, Klemente Vll.a Aita Santuak baimena eman zion Jausoro senar-emazteari dorretxearen ondoan kapera bat eraikitzeko. Orduan erabaki zuten errekastoa estaltzea. 1 528an idatzi zuen testamentuan irakur daiteke aipatu kapera dorretxeari itsatsia eraikitzen hasia zela eta, nere ustez, kaperarekin batera, edo aurretik, premiazkoa ikusi zuten errekastoa estaltzea. Kapera estalduraren gainean eraiki zuten.

Komentuko isurbidearen sarrerak Markinako biderantz jotzen zuen baratzeko harmoraren azpian, egungo errepidearen eta komentu berriaren arteko bidegurutzean zegoen. Kokapen hau komentuko artxiboko dokumentuetan baieztatzen da, baratzearen erdian presa bat ere zegoela aipatuz.

ElScrrrerako arkuaz gain beste zortzi ere bazeuden, tarteka jarriak. Bigarren arkuan {karrarizko harlanduz eraikia), bi errail karratu aurkitzen ziren presa eusteko balio zezaketenak, Leizarpe espeleologi taldekoen ustez.

Bigarren arkuan,baita ere, 1,70 metrotako presa zegoen, ubide baten bidez ura bertaraino igo ondoren, baratzearen azpitik, monastegi barruraino eta honen ubide sistemaraino zihoan. Ura komentuan sartu aurretik baratzeko ureztapenerako erabil zezaketen bertan zegoen putzuaren bitartez.

Beste arkuek komentuko harmoraren bat eusteko zeregina zuten. Isurbidearen helburua, funtsean, errekastoak suposatzen zuen oztopoa gainditzea zen.

PELLO ARR1ETA



·81111 ., S147·54[11]r



# Jose Eizagirre Arruti (1896-1993)



Ondarrun jaio zen 1896ko martxoaren 20an.

Batxiler ikasketak burutu zituen Azpeitiko Marianisten ikastetxean.

Medikuntza ikastera joan zen Madrilgo San Carlos Fakultatera. Cruces-eko ospitalean egin zituen praktikak.

Mendaron egin zituen lehen mediku lanak. Berehala Elgoibarrera etorri zen, mediku titular izendatu zutelarik Don Tomas Zubizarretarekin batera.

Garai hartan gogorra zen medikuen lana. Elgoibarren baserri mordoa dagoenez, haraino joan behar izaten zuten, askotan oinez. Batzutan bizikleta erabiltzen zen eta kasua larria izanik, autoa alokatzen zen.

Jaiotza eta kontsulta ugari atenditu zituen.

Baserritarren eta kaletarren beharrei erantzuteaz gain, etxean zeukan kontsulta.

Don Jose izenez zen ezaguna.

Elgoibarren hil zen 1993ko apirilaren 1 5ean.

ff:  1:1N 1:1
ABUZTUA GOIZEZ IREKITA
San Bartolome, 21 -tel. 74 01 91- 20870 Elgoibar

11111
JANARI mift DENDA
Jaiak ondo pasa guztiok!
Garagarza auzoa, 36
☎ 75 61 05 Mendaro

## MOTZAK

### Dinamo Kalimotxo 3x3ko txapelketako garaile

Dinamo Kalimotxo saskibaloi taldeko kide diren Carlos La Hoz eta Richard Aranzabalek Zaragozan izandako 3x3 Converse txapelketa irabazi zuten. Elgoibartarrekin batera zaragozar batek osatzen zuen hirukotea. Hirugarren edizio honetan inoiz baino maila altuagoa egon dela esan digute jokalari elgoibartarrek. Finala Dinamo Kalimotxok Zaragozako talde baten aurka jokatu zuen. Lehia gogorra izan zen arren, 16 eta 7ko emaitzaz irabazi zuten elgoibartarrek.

### Ibai Gimnasioak bukatu du denboraldia

Ibai Gimnasioko judokek modu ezin hobean amaitu dute aurtengo denboraldia. Joan den astebukaeran lau herriren arteko txapelketan aritu ziren 12 judoka elgoibartar. Ermua, Eibar, eta Plaentxitarren aurka aritu ziren, hamabi domina lortu zituztelarik. Urrezko domina Xabi Gonzalezek, Ganix Osto1azak, Gorka Garatek eta Aitor Mugerzak lortu zuten. Zilarrezkoa irabazi zutenak Egoitz Mora, Hodei Ostolaza, Esther Idiakez eta Maialen Mora izan ziren eta brontzezkoa Zuhaitz Azpiazuk, Josu Idiakezek, Zuriñe Polok eta Maria Idiakezek eskuratu zuten.
Aurtengo denboraldian Gipuzkoa, Euskadi eta Espainia mailan eta atzerrian ere. Frantzian eta Andorran lortu dituzte dominak. Datorren denboraldia irailaren 5ean hasiko dute Ibai Grinnasiokoek.

## Eugenia Gonzalez:

# "Podiuma bizio bat da, engantxatu egiten du"



1 Nola hasi zineten? - Orain hiru bat urte erretzeari utzi nion eta zerbait egin behar genuela eta "Amerieana" deitzen dan gimnasia hasi ginen egiten, estiramentuak, aerobie, yoga... denetariko konbinazio bat da. Hiru emakume elkartu eta Artetxeko eskoletan hasi ginen, orain Kiroldegiko gimnasioan gabiltza emakume talde bat.

I Gero korrika egiten ere hasi zineten. - Bai, poliki-poliki. Behin Donostian martxoaren 8an izaten den emakumeen maratoira joan ginen. Bertako giroa ikaragarri gustatu zitzaigun eta ordutik ahal dugun kros herrikoi gehienetara joaten gara. Orain, gimnasia egiteaz gain, korrika, igeriketa eta beste edozein kirol ere egiten dugu.

I Zuek ere karrera aurretik entrenamendu bereziak egiten al dituzue? Bai, bai. Elikadurari dagokionean, adibidez, gehiago zaintzen gara, gutxiago jan behar izaten dugu, pisua zaintzeko.

Irabazi al duzu sekula koparik? - Bai, beteranoen mailan txapelduna geratu izan naiz Mendaron, Orion, Eskoriatzan, Arrasaten eta Oñatin. Izugarrizko emozioa sortzen da mernentu horretan, batez ere lehenengo kopa irabazten duzunean. Podiumera igotzea bizio bat da, engantxatu egiten du.

I Zein luzerako krosak izaten dira? 10-12 kilometro ingurukoak, batzuetan 20 kilometrokoak ere egin izan ditugu, Behobia-Donostia adibidez, baina horietara parte hartzera soilik joaten gara, ezer irabaztera baino gehiago.

1 Zer da gogorrena? Disziplina bat jarraitzea eta nagia sartzen zaizunean ere gainditu eta entrenatzera joatea, borondate handia behar da.

1 Zer komentatzen dute etxean? - Oso gustura daude, asko animatzen gaituzte. Hasi ginenean etxean ez zuten usten sekula koparik irabaziko genuenik, hura sorpresa lehenengo kopa eranaan nuenean etxera, eta ze ilusio!

1 Federatzerakoan arazoren bat izan zenuten, ez? - Bai, ez gintuzten federatu nahi izan. Adinagatik ez gara rentableak, beraz... gure kontura hasi ginen eta horrela jarraitzen dugu, eta primeran.

I Profesionala izan nahi al zenuke? Ez, ez zait interesatzen. Ez dut bizitza konplikatzerik nahi.

- Adina: 37
- Kirol bat: Atietismoa, dudarik gabe.
- Kirola ikustea ala praktikatzea? Praktikatzen hasi nintzenetik ikustea ere asko gustatzen zait.

NAHIA
ILEAPAINDEGIA
Aza•oeta, 16. MENDARO Tel. 75 51 01

TOKI ALAI jatetxea
- Bazkariak
- Pintxo hotzak eta beroak
- Gosariak
Goizeko 8etatik zabalik
Mendarozabal 2. Tel. 75 60 72

# Josu Aizpunla ar_Aa -za txapelketake irabazlea





• nJosu Aizpurua, irabazitako kopekin. Pieza ederrak arrantzatu zituzten argazkiko elgoibartarrek Beduako errekan.

ragan berri den asteburuan burutu zen Zumaiako Bedua auzoko errekan *La Union* elkarteak urtero antolatzen duen arrantza txapelketa tradizionala. Eguraldiaren laguntzaz, zein baino zein pieza ederragoak arrantzatu zituzten *La Unioneko* bazkideek. Txapelketa goizeko 9etan hasi eta 1 ak aldera amaitu zen. Hogeita zazpi bazkide aritu ziren txapelketan eta irabazlea Josu Aizpurua izan zen; nagusien eta haurren kategorian irabazi zuen. Gaztetxo honek 35 korrokoi arrantzatu zituen, 8 kilo eta 330 gramoko pisua arrantzatu zuelarik guztira. Piezarik haundiena Jesus Mari Iriondok harrapatutako 670 gramoko korrokoia izan zen. Haurren mailan zazpi partehartzaile izan ziren, hauetatik bi, neskak.

**SAILKAPEN OROKORRA:**

1- Josu Aizpurua (8k 330gr.)
2- Javier Zelaia (4k 550 gr.)
3- Mikel Etxabe (4k 520gr.)
4- Jose Luis de la Horra (4k 330 gr.)
5- Andoni Etxabe (3k 880gr.)
6- Enrike Perez (2k 620gr.)

**HAURRAK:**

1- Josu Aizpurua
2- Mikel Etxabe
3- Andoni Etxabe

**KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK**

## Sigmako XIV. Pelota

Txapelketako partiduak goizeko 2etatik aurrera jokatuko dira zapatuan, hilak 23. Hona hemen partiduen zerrenda: Infantilen mailan Ivan Rojo arituko da Vigarasen aurka. **Jubeniletan,** berriz, David Rojo eta **Ales** Vigarasen artean izango da lehia. **De** Pablo eta Ondarza bikoteak, Balzola eta Kateiren aurka jokatuko dute 2. mailako kategorian. Eta, azkenik, lgo mailan, Beraza-Txurruka bikotea izango duzu Anso1a-Lazarobaster bikotearen aurka.Argazkian agertzen direnak iazko irabazleak dira.



# 17 talde aritu ziren lehen futbol jaialdian

**OHOko 200 haur baino gehiago aritu ziren C. D. Elgoibar Kirol Elkarteak antolatutako lehen futbol jaialdian. Futbola bultzatzeko asmoz, "Futbol a 7" izeneko modalitatean jokatu zuten haurrek Mintxetako zelaian.**



• E Hemen dugu arratsaldeko finaletako bat irabazi zuen taldea.

Egun osoko jaialdia izan zen joan den larunbatean Mintxetan burutu zena. Goizeko 1Oak inguruan hasita, arratsaldeko 6,45ak arte luzatu zen. Guztira hamazazpi talde, OHOko herriko hiru ikastetxeetako haurrez osatutakoak, jokatu zituzten kanporaketako partiduak. Partiduek 50 minutuko iraupena izan zuten, 25 minutuko bi zatitan banatuta.

Ez zen emoziorik falta izan, talde gehienen arteko maila berdintsua izan baitzen. Mutilez osatutako taldeez gain, neskez osatutakoak ere bazeuden, bi hain zuzen. Antolakuntzan aritu zen C. D. Elgoibar elkarteko lehendakaria den Manolo Esnaola "Muxi", pozik agertu da jaialdiak haurren eta gurasoen artean izandako harreragatik eta datorren urtean, elkarteak berriro antolatzeko asmoa du.



• E Entrenatzaile eta jokalari berriak: Ormaetxea, Arrizabalaga, Argoitia, Agirregomezkorta eta Nuñez.

## Entrenatzaile eta jokalari berriak

C.D. Elgoibar Kirol Elkarteko taldeak entrenatzen hasi dira datorren denboraldira begira. Aurkezpen ofiziala joan den astelehenean egin zuen klubeko presiclenteak, Manolo Esnaolak. Ekitaldian entrenatzaile eta jokalari berrien izenak ezagutzera eman zituen. Haundi taldearen entrenatzailea Kike Ormaetxea eibartarra izango da. Iaz Azkoitiko Anaitasuna taldea entrenatzen jardun zuen eta Eibar Urko taldean ere aritu da lehenago. C.D. Elgoibar Elkarteak aurtengo denboraldirako fitxatu dituen jokalari berriak hiru dira: Eneko Arrizabalaga atezaina, Koldo Agirregornezkorta erdilaria eta Argoitia, erdilaria hau ere. Lehen biak Mutrikutik datoz eta hirugarrena Azkoitiko Anaitasunatik. Aproban hartu dute Soraluze taldean jokatu duen

LANDAI
ERRETEGIA
LGaragarza, 32 11 75 60 28

IVEREZI ASUNAC
I& LEGATZA CHANPAN ERARA
Ib GANBA ETA INTXAUR PUDING—A
eutdo- /2444ect

# Deba Beheko turismo gida egin du DEBEGESAk

**Deba Beheko garapen sozioekonomirako erakundeak, DEBEGESAk Deba Beheko herriak bildu ditu liburuska batean. Bertan, herri bakoitzeko txoko ezberdinak jaso ditu, aisialdi eta turismo aldetik dituzten baliabideak argitara emanez. Ermua, Mallabia, Eibar, Plaentxi, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku dira, hain zuzen ere, eskualde hau osatzen dutenak eta horien inguruan osatu da liburuska.**



21 Hirukurutzetako parajea aipatzen da gidan.

ill elburu hirukoitza izan du aipatu bilduma osatzeak. Alde batetik, bailara honetako hizilagunei denbora librea igarotzeko zein aukera dauden azaltzea, norberak bere herriaz ezagutzeaz gain, inguruan dituen beste horiek ere ezagutaraztea. Bestetik, eskualde honetara hurbiltzen diren bisitariei ere eskura jarriko zaie liburuska, gure inguruan zer aurkitu dezaketen azalduz. Hirugarren helburua, aisialdi eta turismo arloan Deba Beheak eskain ditzakeen baliabideak azaltzea da, bailara hau hirugarren sektorean ere garatu dadin.

Liburuska atal ezberdinetan banatua dago: mendia, kostaldea, historiaurreko aztarnategiak eta kobazuloak, artea, ermitak, elizak eta bestelako hiri eraikuntzak, kirol eta kultur azpiegiturak, alojamendua, jaiak eta ospakizunak eta bestelako informazioa. Honela, Elgoibarri dagokionean Karakate, Hirukurutzeta, Morkaiko, IMHko erraminta makina museoa, San Lorentzo ermitako margoak, San Bartolome parrokia, Olasoko ataria edo Altzola dorretxea aurki ditzakegu, bestea.k beste.

Informazio oro argazkiez osatua joango da, euskaraz nahiz gazteleraz idatzia. Liburuska doan banatuko da eta jaso nahi duenak Udaletxeko Kultur Zerbitzura jo dezake.

LAXAKOR
ALUMINIOIKOI AROZTEGIA1
iai zolioutot41d1
+POLIURETANOA +-PVC
+MISTOA (EGURRA -ALUMINIOA)
K/ J. M. Linazasoro, 9.(Tren geltoki ondoan) /FAX: 75 62 28 MENDARO

/
4
• MDEK
• SOLdniti
D
,3s
* 274 27,92 6

# Ealmni,4 a@a ddoeelot, yeld azdeitatia

**Jaietako lehen musika hotsak entzuten hasi garen honetan, hondartzako bero, itsasoko medusa eta txosna artean, hasi dira lehen begirada sutsu eta irrifar lotsatiak gurutzatzen. Inork ez daki zergatik, baina uda, edo hobe esanda, jaiak, omen dira ligatzeko unerik aproposenak. Udako sargori eta krema usainekin hasten baitira urteroko parejitak sortzen. Soziologoek aztertu beharko luketen giza fenomenu bat da hau.**



• Jaiak, gauaren konplizitatean, ligatzeko aproposak dira.

Askok eta askok beren lehenengo musuak ezagutuko dituzte, beste batzuek, urteroko errutina basatiari hasera emango diote eta, azkenik, badira zerbeza eta tabernetako ke artean, bakarrik jarraituko dutenak. Azkenengo hauek izango dira uda bereziki esperoko dutenak edota leihora irtenda, Isabel Gemioren karabana antsiaz amestuko dutenak.

Hi, irakurle, azken hauetakoa bahaiz, utzi iezaiok/n karabana miragarriaren zain egoteari eta jarraitu itzak/n fidelki guk eskainitako aholku hauek:

> "Udako sargori eta krema usainekin hasten dira parejitak sortzen"

1- Jarri hadi ispilu aurrean eta hire aurpegi lerdena granoz josirik agertzen baduk/n, segi zakln saltaka lehenengo aurkitzen duan/nan farmaziara eta erosi zak/n *Clearastic* pakete eder bat.

2- Komeni duk bizarra ganoraz moztea. Neska bahaiz, aldiz, badun ordua muturreko mustatxo hori kentzeko!

3- Ileari dagokionez, hi mutil, hartu zak Mario Conderen argazki bat eta, gominaz, saia hadi bere orrazkera kopiatzen. Hik neska, eros itzan dozena erdi kotilleo aldizkari eta aukeratu gehien atsegin dunan *looka.*

4- Barruko erropa oso garrantzitsua duk/n. Horregatik, utzi behingoz amak erositako kantzontzilo, kulero eta sostenak jazteari eta saia hadi, noizean behin bada ere, diseinu orijinaleko barruko erropa erosten.

5- Gauez, neskatara edo mutiletara joateko asmorik baduk/n, faborez, ez zakin jan bazkalorduan txorizo eta berakatzik.

6- Hik mutil, ahal baduk erabili marka berdineko kolonia eta after shave-a. Neska bahaiz, asteburuetan bada ere, erabil zan gustuko duan perfumeren bat. Baina ez pasatu (eta honek biontzako balio dik/n).

7- Aholku sorta honekin bukatzeko, komeni duk/n amaren Geranio eta Alegrien ondoan Larrosa sorta bat landatzea edota, bestela, loradendak bisitatzen hastea.

Aholku hauek fidelki jarraitu eta gero ere bakarrik jarraitzen baduk/n, jakintzak/n konbentu eta monastegiak jende eskasian dabiltzala.

**UBIko ikasleak**

TX1RRIST70CICX
PUB
Goizeko 9etatik zabalik
Mendaro7abai. 1. Tel 7S R1 39 MFNDARO

S k

GARAJEA ALOKATZEN DA ganbara eta guzti. Juan Mugerza kalea. (Pista beltza) 'n" 74 07 10 Gaueko 7,30etatik 10etara.

Bainu gelarako MANPARA, ARMAIRUA eta ISPILUA saltzen ditut. Prezio oso onean.
"a 74 19 81 Ana Mari

MENDIKO plastikozko Koflach Viva Soft BOTA BATZUK saltzen ditut. Zenbakia 8 1/2 - 9 (41-42)
z" 12 04 44
Deitu eguerdiko 1,30-2,00 bitartean

MOUNTAIN-BIKE hat eta URETAKO PAIPO bat salgai, biak prezio merkean.
lEr 74 26 91

Jende famatuaren ARGAZKI ORIGINALAK SALTZEN DITUT: Julen Guerrero, Alkiza, Sergio Dalma, Alejandro Sanz, Amistades, Duncan Du,... eta abar. Idatz iezadazue eta eskatu zeiTencla. Sartu gutunazalean 18 ptako 4 sello.
Helbidea: Igor Galo.
Zarauz Hiribidea 13 -3 ezk.
20 009 Donostia

KANPING KARRO BAT ETA OSAGARRIAK saltzen ditut. Egoera onean.
Ir 74 19 39 Mari Sol

Karabana bat sartzeko GARAJE EDO LOKAL BAT ALOKATU nahi dut.
tr 74 29 52
Gauez 8-10 bitartean

LOKAL KOMERTZIAL BAT EDO GARAJE BAT saltzen da Urasandin.
7a" 74 21 86

GARAJE BAT alokatzen da pista beltzean. Marraduna da.
D174 21 64

MOTOR bat daukat SALTZEKO G.A.C. Onix 2. 900 km.
Gauez, 8etatik aurrera.
"ī1 74 29 32

GARAJE BAT alokatzen da San Roke 5ean. Marraduna.
"A" 74 08 05

BROTHER TRIKOTOSA BAT SALTZEN DUT. Bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.
rr 74 18 51

SURF tabla bat saltzen dut 20.000 ptatan, "Esus" markakoa.
17 74 07 61 Julen
(afal orduetatik aurrera.)

San Roke auzoan GARAJE BAT alokatzeko daukat.
z" 74 00 67 Martin

Lana

KAMARERA BAT BEHAR DA jatetxe baten lan egiteko. Ez da beharrezkoa esperientziarik izatea.
z° 74 44 09

ENPRESARIALESEKO 1. KURTSOKO asignaturen errepasoa einangoIukeen pertsona bat nahi genuke.
74 33 17

PARTIKULARRAK ematen ditut euskaraz eta erdaraz. OHO eta BUP.
74 28 53 Alazne

Edozein TESTU MOTA ORDENAGAILUZ PASATZEN da eta "CuiTieulurn Vitae"ak egiten dira.
O 74 44 47

BBB eta UBIko FISIKA ETA MATEMATIKAKO KLASEAK ematen Euskaraz eta erdaraz.
`Zr 74 23 01 Jokin

FRANTSES KLASE INTENTSIBOAK ematen ditut. Uztailean zehar.
Z` 74 04 59 Jacqueline.
8etatik aurrera deitu.

Klase partikularrak ematen ditut. Matematikak, kosteak eta kontabilitatea orokorrean. Ekainean eta uztailean.
71'74 21 65 Jabi

E k

PISU BAT ALOKATUKO genuke. Deitu 9,30etatik aurrera.
12 13 69

PISU BAT ALOKATZEN DUT CAMBRILSen. Uztailaren 2. hamabostaldia eta abuztua.
z:' 19 27 33
Deitu 20,00etatik aurrera.

PISU BAT daukat salgai Ermuaranbiden.
74 27 12

ETXE BAT SALTZEN dugu Pedro Muguruzan. Egoera oso onean eta guztiz amueblatua. Bigarren pisua.
1,r 74 08 57

BUNGALOW BAT ALOKATZEN DUT Santa Polako hondartzako lehen ilaran. Ekaina, uztaila, iraila.
tr 74 27 02 Ana

APARTAMENTU BAT DAUKAT BENIDORMen alokatzeko moduan. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua. Labadora eta aire girotua,
"a 74 16 57 / 11 32 15

## PREMIAIKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak 461111
Txonda hartzeko 743354
Planning 742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.........743864
Mendaroko Ospitaia .756264
Drogomenpekotasun Z..741008
Odol Emaileak .........743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
PESA (Eibar) .. 112131
Taxi Geltokia 740898

### UDA1A

Euskara Zerbitzua 744366
Kirol Zerbitzua 744415
Kultura Zerbitzua 742158
Mendaroko Udala 756100
Ongizate zerbitzua 743736
Udaletxea 741050
Udaltzaingoa 741394

### BESTELAKOAK

Caritas 740142
IMI 741196
Kontsumo Bulegoa 743088
Liburutegia 743525
Musika Eskola 742145
Mintxeta 744315
Polikiroldegia 741361
Postetxea 741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia 740526

### 1KASTETXEAK

Herri eskola 74 08 79
I.M.H 74 41 32
Institutua 74 02 67
Ikastola 74 44 41
L.H.I 74 44 80
Pilar Ikasithea 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
El Diario Vasco 74 40 73
El Mundo 11 85 05
74 22 67
El Correo Espatiol 74 10 82
Egin 11 84 21
Deia 74 11 57
Zazpiki 74 34 74

## OSTIRALA

22,30 AIRE LIBREKO ZINEA
"Maximo riesgo"
✓ Plaza Handian
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

## LARUNBATA

12,00 SASKIBALOI TALDEA OSATZEKO BILERA
✓ Kultur Etxean

12,00 SIGMAKO XIV. PILOTA TXAPELKETA
✓ Sigmako frontoian

22,30 AIRE LIBREKO ZINEA
"En tierras peligrosas"
.■ Plaza Handian
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

## IGAN DEA

12,30 BANDAREN KONTZERTUA
✓ Herriko Antzokian

## ASTEARTEA

19,00 NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIAREN HARRERA
✓ Kultur Etxean

22,30 NAZIOARTEKO VIII. FOLKLORE JAIALDIA
Haritz Dantzari Taldea, Argentinako "Danza Argentina" eta Lituaniako "Nemunas".
✓ Kiroldegian
Antolatzailea: Musika eta Dantza Fundazioa eta Elgoibarko Udala.

## OSTIRALA

22,30 AIRE LIBREKO ZINEA
"Mucho ruido y pocas nueces"
,( Plaza Handian
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

## SALLOBENTEKO JAIAK

### Abuztuak 6

19,00: Jaien hasera txafligu eta kanpai jotzearekin.
22,30: Bolo saioa.
23,30: Baden-Baden orkestarekin gau-pasa.

### Abuztuak 7

11,00: Meza.
Ondoren, salda eta txorizoa.
12,30: Zeberio eta Mendizabal bertsolariak, eta Zabale anaiak soinujoleak.
Ondoren, herri mailako Mountain-bike lehiaketa.
14,30: Lagunarteko bazkaria.
18,30: Herri Kirolak: Arrospide, Olasagasti, Izeta eta Egi. Bertsolariak, soinujoleak eta zezenak eta pottokak.
22,00: Bolo saioa.
23,00: Erromeria Zabale anaiekin.

### Abuztuak 8

14,00: Lagunarteko bazkaria.
18,00: Haurrentzako jokuak, zezenak eta pottokak.
Ondoren, txokolatada.
20,30: Bolo saio berezia emakumeentzat.
23,00: Erromeria Txillarre eta Pablorekin.

### Abuztuak 9

18,30: Errosarioa eta meza auzokoen alde.
Ondoren, bakilau jana auzoko aitonentzat.
Jarraian, Zabale anaiak
22,30: Bolo saioa.
23,00: Erromeria Josu Ordokirekin.

### Abuztuak 10

Sallobente eguna

11,00: Meza Nagusia.
Ondoren, salda eta txorizoa.
13,00: Pilota partiduak.
18,00: Plater puskaketa herrikoia.
22,30: Erromeria Gelatxo eta Ziolarrekin.

# txandak

## FARMAZIAK:

23, larunbata: Etxeberria
24, igandea: Etxeberria
25, astelehena: Yudego
26, asteartea: Bidasolo
27, asteazkena: Bidasolo
28, osteguna: Bidasolo
29, ostirala: Bidasolo

24, igandea: ZABALETA
25, astelehena: EIZAGIRRE
31, igandea: FOTERO

## SAN ROKEKO JAIAK

### Abuztuak 15

17,00: Jaien hasera.
19,00: Errosario Santua.
Jarraian, bakilau jana
21,00: Gelatxo eta bola-jokua.

### Abuztuak 16

8,00: Txafligu jaurtiketa.
11,00: Meza.
Jarraian, harri jasotzaileak: Pato eta Mintxeta.
Ondoren Laja eta Landakandarekin erromeria.
19,00: Haurrentzako jokuak eta untxi soltaketa.
Jarraian, enbolatu eta poney-ak.
22,00: Erromeria Laja eta Landakandarekin.
21,00: Bolo-jokuak.

### Abuztuak 17

08,00: Txafligu botatzea.
11,00: Meza hildakoen alde.
Jarraian, Jose Gardokirekin kalejira.
13,00: "I. Mountain-Bike
14,00: Anaiarteko bazkaria.
19,00: Herri Kirolak: Aizkolariak, Fausto eta Peña. Harrijasotzaileak, Egi eta Sarobe.
Jarraian, enbolatuak eta poney-ak.
22,00: Erromeria Jose Gardokirekin eta bolo-jokua.
01,00: Untxi soltaketa.

# ATXURI

## NEKAZAL TURISMOKO ETXEA



Madarixatik 4,5 km.tara gaude.
Handik aurrerako bidegurutze guztietan ezkerretara hartu.

tr 15 04 41

ZURE OPORRAK ETXETIK HURBIL PASATZEKO AUKERARIK EGOKIENA:

- 12 pertsonarentzako lekua
- 6 logela bainugelarekin
- Sukaldea erabiltzeko aukera
- Pentsio osoa edo erdia.
- Mendi bueltak egiteko aukera paregabea.

ZIOlk
ISPIGURA
Uzkoilok 23 \orunboka.
2eton binlxo
eguercPw 1


# f. LIDAKD 91E7RM LEM711



## SARIAK:

### I saria:

Astebukaera bat Frantziako Landetan bi lagunentzat.

### 2. saria:

Astebukaera bat Frantziako Landetan bi iagunentzat,

## OINARRIAK:

BARRENen 72. zenbakian (27. orriaidean).

ANTOLATZA1LEA: BARREN astekaria


GENERALI

GENERALI ASEGURUAK

"RONKINA" Aitor Eizagirre. Santa Ana 20. Tel. 74 41 01

HFE9N

**Kide** ileapaindegia

*Abuztuaren bigarren astetik aurrera*
*ZUZENBIDE BERRIA*



San Frantzisko 40 - 3B
☎ 74 00 69

Abuztuan goizez zabalduko dugu



**4ukalde eta halizari erakusketa ikusgarria**

Aukera zabala egongela, logela eta tresilloetan. Klasikoak, modernoak, errusloak eta jubenilak.

Hiru solairutako
Ir 3.000 m²-ko erakusketa.

Larunbat arratsaldetan IREKITA




HALTZAR1AK
FEVA`t
Itziar gaina - Tel. 19 91 00 - DEBA

COLCHON Laxy